

**3seuskadi**

# **Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren 2023ko Barometroa**

Abendua  
2023

Egilea: Hirugarren Sektorre Sozialaren Euskal Behatokiko taldea.

Parte hartu duen Behatokiko talde: Iker Fernández, Iskandar Cabezas eta Lucía Merino.

EAEko administrazio orokorraren tresna tekniko bat da Behatokia, gizarte-zerbitzuen inguruko gaien eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailaren mendekoa. Informazioa eta ezagutza biltzea, sistematizatzea, eguneratzea eta sortzea da Behatokiaren ardura, baita informazio eta ezagutza hori Hirugarren Sektorre Sozialarekin lotutako eremuetan eta bertako erakunde eta sareetan hedatzea ere (Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 25.1. artikulua).



Behatokiaren argitalpen guztiak kontsultatzeko eta dohainik deskargatzeko aukera dago Behatokiaren webgunean ([www.3seuskadi.eus](http://www.3seuskadi.eus)) eta <https://ikusmirak.eus/> webgunean.

Argitalpen horien bidez, hirugarren sektorre soziala hobetzen lagundu nahi dugu. Horregatik, ahalik eta gehien hedatzea eskertzen dugu eta haiek banatzea, kopiaatzea eta berrerabiltzea baimentzen dugu, baldin eta diru-irabazi asmorik gabe egiten bada eta egileak aitortzen badira.



## Aurkibidea

<b>SARRERA ETA FITXA TEKNIKOA .....</b>	<b>1</b>
<b>1. NORTASUNA.....</b>	<b>3</b>
<b>1.1. ZIFRA NAGUSIAK.....</b>	<b>3</b>
<b>1.2. ZER BEREZKO EZAUGARRI DITU EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAK? .....</b>	<b>4</b>
<b>2. JARDUERA .....</b>	<b>6</b>
<b>2.1. ZER ARLOTAN EGITEN DUTE LAN? .....</b>	<b>6</b>
<b>2.2. ZENBAT DENBORA DARAMATE LANEAN? .....</b>	<b>7</b>
<b>2.3. NOIZ ARTE HEDATZEN DA HAREN EKINTZA? .....</b>	<b>8</b>
<b>2.4. ZER KONTINGENTZIA ARTATZEN DITUZTE?.....</b>	<b>9</b>
<b>2.5. ZER KOLEKTIBORI ZUZENDUTA DAUDE? .....</b>	<b>9</b>
<b>2.6. ZER JARDUERA GARATZEN DUTE? .....</b>	<b>11</b>
<b>3. PERTSONAK .....</b>	<b>16</b>
<b>3.1. LANTALDEAK: BOLUNTARIOAK ETA SOLDATAPEKO LANGILEAK .....</b>	<b>16</b>
<b>3.2. BAZKIDEAK ETA EMAILEAK .....</b>	<b>19</b>
<b>4. BALIABIDE EKONOMIKOAK.....</b>	<b>20</b>
<b>4.1. ZER BALIABIDE EKONOMIKO DITUZTE? .....</b>	<b>20</b>
<b>4.2. NONDIK DATOR FINANTZIAZIOA?.....</b>	<b>21</b>
<b>4.3. ZERTARA BIDERATZEN DITUZTE BALIABIDE EKONOMIKOAK? .....</b>	<b>21</b>
<b>5. KUDEAKETA- ETA KOMUNIKAZIO-ESTRATEGIAK .....</b>	<b>23</b>
<b>5.1. ZER KUDEAKETA TRESNA ERABILTZEN DITUZTE? .....</b>	<b>23</b>
<b>5.2. ZER BESTE KUDEAKETA PRAKTIKA BARNERATU DITUZTE? .....</b>	<b>24</b>
<b>5.3. ZER INFORMAZIO HELARAZTEN DIETE INTERES TALDEEI?.....</b>	<b>25</b>
<b>6. HARREMANAK .....</b>	<b>27</b>
<b>6.1. NOLAKOA DA BESTE ERAGILE BATZUEKIKO HARREMANA? .....</b>	<b>27</b>
<b>6.2. NOLAKOAK DIRA EHSS-KO HARREMANAK? .....</b>	<b>28</b>
<b>7. EHSSren ERRONKA BATZUK.....</b>	<b>29</b>
<b>8. DATUEN ALDERAKETA .....</b>	<b>31</b>

## SARRERA ETA FITXA TEKNIKOA

Ekimen eta esku-hartze sozialeko erakundeak eta sareak indartzea da Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2012 Legearen helburua, eta lege horren lehentasunen artean dago sektorea eta haren bilakaera ezagutzearen garrantzia. Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala sustatzeko Estrategiak<sup>1</sup> –egungo araudi-esparrua sendotzen duena– 33. jarduketan, informazioa eguneratuta izatearen garrantzia nabarmendu zuen, eta honakoa zehaztu zuen: “Sektorearen, haren ezaugarrien eta haren ekarpenen gaineko datu sistematikoak eta aldian behingo datuak eskuragarri izatea oinarrizkoa da diagnostikoak, plangintzak eta ebaluazioak egiteko, eta lagungarria izan da eta izango da sektorea egituratzeko, erakundeak sektorearekin identifikatzeko eta sektorea aintzat hartzeko”. Helburu horretarako, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren (aurrerantzean, EHSS) egoerari buruzko ikerketa eta ebaluazioa egiteko aldizkako zikloa jarri du abian, legeak jasotzen dituen aurreikuspenen arabera. Aipatutako zikloak bi urtez behingo txosten bat (barometroa) eta lau urtez behingo txosten bat (liburu zuria) hartzen ditu barne; liburu zuriak dagokion bi urtez behingo txostena jasoko du.

**Barometroaren eta Liburu Zuriaren** helburua da erakundeen ezaugarriei eta egiten dituzten jardueri buruzko aldizkako informazioa eta informazio adierazgarria jasotzea, haien ekarpen sozialaren eta errealitate anitzaren berri ematea, EHSSko kide izatearen sentimendua eta aitortpen soziala bultzatzea, baita sustapen eta garapenerako orientazioak ezartzea ere.

**Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren 2023ko Barometroa** produktu bizia eta moldagarria da, modu sintetikoan Euskadiko ekimen eta esku-hartze sozialeko sareei eta erakundeei buruzko informazio esanguratsua eskaintzen duena. Aldizkako ikerketa-zikloarekin bat etorritik, Liburu Zuriaren edizio honek EHSSren Barometroa du barnean. Liburu Zuriaren esparruan egin denez, Barometroa datu kuantitatibo nagusien separata bat da.

Txostenean eskaintzen diren datuek EHSS osatzen duten erakundeen eta sareen ezaugarriak erakustea dute helburu. Erakunde eta sare horiek herritarren ekimen libretik sortuak dira, eta antolatutako elkartasuna eta herritar guztien (bereziki, egoera, arazo edo behar sozialek kaltetutako pertsona, familia, talde edo komunitateena) parte-hartzea jasotzen eta bultzatzen dute. Jardueraren garapenean, erakundeek behar sozialen erantzuna intzidentzia sozialekin uztartzen dute zerbitzuen bitartez, eta beraien jarduerarekin funtsezko ekarpena soziala egiten dute. EHSSri buruzko legeak dioen moduan, kapital sozial, erlazional eta giza kapital handia bideratzen dute erakundeek. Eta euskal gizarteko funtsezko aktiboak dira, gizarte justu, berdinzale, solidario, kohesionatu, parte-hartzaile eta demokratiko gisa egituratzeko.

---

<sup>1</sup> EUSKO JAURLARITZA (2018). *Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala sustatzeko estrategia*. Hemendik hartua: [https://www.euskadi.eus/contenidos/noticia/xiileq\\_planes\\_departamentales/eu\\_def/EUSKADIKO-HIRUGARREN-SEKTORE-SOZIALA-SUSTATZEKO-ESTRATEGIA.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/noticia/xiileq_planes_departamentales/eu_def/EUSKADIKO-HIRUGARREN-SEKTORE-SOZIALA-SUSTATZEKO-ESTRATEGIA.pdf)

Txosten honetan, Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokiko lan guztietan bezala, 2016ko maiatzaren 12ko Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren 6/2016 Legeak<sup>2</sup> jasotzen duen Hirugarren Sektore Sozialaren definizioa hartzen dugu abiapuntutzat. Definizio horren arabera, sektore horretako parte dira egoitza edo delegazioa eta jarduera Euskal Autonomia Erkidegoan duten gizarte-ekimeneko erakundeak, eta esku-hartze sozialeko jardueren bidez, gizarteratzea, garapenerako lankidetzak, zaugarritasun- edo bazterketa-, desberdintasun-, babesgabetasun-, desgaitasun- edo mendekotasun-egoerei aurre egiten dieten pertsonen, familien, taldeen, kolektiboen edo komunitateen eskubideen baliatze eraginkorra sustatzea xede nagusitzat dutenak. Gainera, Euskadiko hirugarren sektore sozialeko saretzat jotzen ditu beste erakunde batzuk ordezkatzeko dituzten bigarren mailako eta goragoko mailetako erakundeak, baita kolektibo zehatz bat ordezkatzeko duten Euskadiko hirugarren sektore sozialeko esku-hartze zuzeneko erakundeak ere, dagokion lurraldean edo geografia eremuan kolektibo hori ordezkatzeko duen sarerik ez dagoenean.

Zazpi kapitulutan multzokatuta, 2023ko Barometroaren emaitzek Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren ezaugarri nagusiak ematen dituzte aditzera, identitateari, jarduerari, sektorea osatzen duten pertsonen, baliabide ekonomikoari, erabiltzen dituen kudeaketa-tresnei, sektoreari eusten dioten barne- eta kanpo-harremanei eta identifikatutako erronkei dagokienez. Gainera, datu konparatiboen kapitulu bat ere gehitu dugu, erakundeek azken urteetan izandako bilakaera ikusi ahal izateko.

Galdetgia betetzen lagundu duten 438 erakundeek parte-hartze eskuzabalagatik ez balitz, ezin izango litzateke Liburu Zuria egin, eta ezingo lirateke datuak aurreratu EHSSren 2023ko Barometroaren bidez. Gure eskerrik onenak guztiei.

## FITXA TEKNIKOA

### IKERKETAREN UNIBERTSOA

Euskadiko Hirugarren Sektore sozialeko erakundeak

**4.259**

LAGINA

**438**

erakundeak hartu dute parte ikerketan

### KONFIANTZA ETA ERRORE MAILA

konfiantzaren

**%95**

eta

**%4,4**

errore marjina

### DATUAK JASOTZEKO TEKNIKAK

onlineko galdetgia

### DATUAK JASOTZEKO EGUTEGIA

2023ko maiatzaren 8tik uztailaren 7ra egindako landa-lana

### OHAR METODOLOGIKOAK


konsultatu ohar metodologikoen inguruko dokumentua informazio gehiago izateko

<sup>2</sup> EUSKADI. 6/2016 Legea, maiatzaren 12koa, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzkoa. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 94. zk., 2016ko maiatzaren 19koa. Hemendik hartua: <http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2016/05/1602096a.pdf>.

## 1. NORTASUNA

### 1.1. ZIFRA NAGUSIAK

## KOPURU NAGUSIAK-2023



Kalkuluen arabera, 4.259 erakundek (2.395 Bizkaian, 1.231 Gipuzkoan eta 633 Araban) osatzen dute Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala; hau da, Euskadiko 1.000 biztanleko 1,94 erakundeko tasa<sup>3</sup>. Erakunde horiek, gutxi gorabehera, 45.624 langile dituzte, eta 168.291 boluntarioren partaidetza soziala bideratzen dute. 2022an, 2.045 milioi euroko bolumen ekonomikoa kudeatu zuten, euskal BPGaren % 2,4<sup>4</sup>.

<sup>3</sup> 2022ko abenduan 2.191.613 pertsona bizi ziren Euskadin: Bizkaian 1.141.407, Gipuzkoan 718.109 eta Araban 332.097. Iturria: EUSTAT. Biztanleen udal-estatistika (azken eguneraketa 2022ko abenduan).

<sup>4</sup> 2022an, Euskadiko BPGa 86.266.450 €-koa izan zen: Bizkaiko BPGa 44.615.525 €-koa; Gipuzkoakoa, 28.303.136 €-koa; eta Arabakoa, 13.347.789 €-koa. Iturria: EUSTAT. Hiru hileroko Kontu Ekonomikoak.


ERAKUNDE AKTIBOAK 2023AN, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. ABSOLUTUAK, %, BIZTANLERIAREN GAINEKO RATIOA, SOLDATAPEKO LANGILEEN BOLUMENA, BOLUNTARIOEN BOLUMENA ETA BPG-REN GAINEKO RATIOA<sup>5</sup>



## 1.2. ZER BEREZKO EZAUGARRI DITU EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAK?

EHSSeko 6/2016 Legearen arabera EHSSk har ditzaketen figura juridikoen artean, gehienak elkarreak dira. Erakundeen % 90,9 elkarreak dira<sup>6</sup>, % 6,2 fundazioak eta gainerako % 2,9ek beste figura juridiko bat dute.

ERAKUNDEEN BANAKETA, FIGURA JURIDIKOAREN ARABERA (%)



<sup>5</sup> Horrekin lotuta, gogorarazi beharrekoa da lurralde historikoen araberako datuak tentuz hartu behar direla. Izan ere, Bizkaian errore-margina +/-% 6,2koa da, Gipuzkoan +/-% 8,3koa eta Araban +/-% 9,6koa. Bestalde, kudeatutako bolumen ekonomikoak adierazten duen BPGrekiko ehunekoa lurralde historiko bakoitzaren BPGrekiko kalkulatu dago eta 2022ko prezio arruntetan. Era berean, erakundeek 1.000 biztanleko duten tasa lurralde historiko bakoitzaren biztanleria oinarri hartuta kalkulatu da.

<sup>6</sup>Figura juridikoen araberako erakundeen banaketa unibertsoa (Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen guztizkoa) oinarri hartuta kalkulatu da, ez lagina oinarri hartuta.

Gutxi gorabehera, erakundeen % 31,7k onura publikoaren deklarazioa dute. Deklarazio horrek gizarteak lan hori aitortzen duela adierazten du, eta berekin dakar erakundearen xedeek interes orokorra sustatzeko joera izatea eta jarduera bazkide-tutako pertsonen mesede egitera soilik ez mugatuta egotea.

Erakundeen % 46,4 pertsona eta/edo familia hartzaileek zuzenean eratu-takoak dira, eta horrek adierazten du erakundeen eta jardueraren pertsona eta kolektibo hartzaileen artean lotura estu eta egonkorra dagoela. Hain zuzen ere, 2 kasutik ia 1ean haiek osatzen dute erakundea.

Entitateen % 98 inguru oinarritzko erakundeak dira, eta bigarren edo hirugarren mailako sareek edo entitateek sektoreko erakunde guztien % 2,1 osatzen dute, gutxi gorabehera<sup>7</sup>.

Kontsultatutako sareen erdia 14 erakunde baino gutxiago biltzen duten elkarteak dira. Beste erdia, aldiz, 14 erakunde edo gehiagok osatuta daude. Batez beste, sareetako bakoitzak 31 erakunde inguru biltzen ditu.

ERAKUNDEAK, BEREZKO EZAUGARRI BATZUEN ARABERA (%)



<sup>7</sup>Erakundeen banaketa, oinarritzko erakunde diren edo sareak diren kontuan hartuta, unibertsoa (Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakunde guztizkoa) oinarri hartuta kalkulatu da, ez lagina oinarri hartuta.



## 2. JARDUERA

### 2.1. ZER ARLOTAN EGITEN DUTE LAN?

JARDUERA ARLOEN DEFINIZIOA ETA ERAKUNDEEN BANAKETA, JARDUERA ARLO NAGUSIAREN ARABERA. (%)



Erakunde gehien biltzen dituzten jarduera arloak zeharkako esparru soziala eta gizarte-zerbitzuak dira. Zehazki, erakundeen % 37,5ek taldeen (adinekoak, immigranteak, emakumeak, eta abar) eskubideak sustatzen dituzte, batez ere. Halaber, erakundeen % 22,2k gizarte-zerbitzuak ematen dituzte<sup>8</sup>.

Haien jarduera nagusia ez izan arren, erakundeen % 63,8k adierazi dute zeharkako esparru sozialean parte hartzen dutela, neurriren batean. Eta sektoreko entitateen erdiek baino gehiagok (% 56,5) jarduera dute gizarte-zerbitzuen arloan. Esparru nagusiez gain, % 49,8 hezkuntzaren eta aisialdiaren inguruan ari dira lanean, eta % 40,5ek osasunaren arloan garatzen du lana neurri batean.

JARDUERA ARLO BAKOITZEAN LAN EGITEN DUTEN ERAKUNDEAK (%)



## 2.2. ZENBAT DENBORA DARAMATE LANEAN?


EHSSren barruan erakunde mota asko daude, askotariko ibilbideak eta esperientzia dituztenak. Sektorea osatzen duten entitateen % 32,7k, gutxi gorabehera, 20 urte edo gehiagoko ibilbidea dute. Horietatik % 1,1ek 50 urte edo gehiago daramatzate aktibo.

Bestetik, erakunde berriagoak ere baditu sektoreak. Erakundeen % 18,2 nahiko gazteak dira, 5 urte baino gutxiagokoak<sup>9</sup>. Horrek agerian uzten du sektorearen dinamismoa eta etengabeko gaztetzea.

<sup>8</sup> Jarduera arloaren arabera erakundeen banaketa kalkulatzeko, unibertsoa (EHSSko erakunde guztiak) hartu dugu oinarri, ez lagina.

<sup>9</sup> Eraketa-urtearen arabera erakundeen banaketa kalkulatzeko, unibertsoa (EHSSko erakunde guztiak) hartu da oinarri, ez lagina. Unibertsoa erakundeen % 8,7ren eraketa-data ezin izan da egiaztatatu.

ERAKUNDEEN BANAKETA, ERAKETA URTEAREN ARABERA. (%)



### 2.3. NOIZ ARTE HEDATZEN DA HAREN EKINTZA?

Erakundeen % 85,9ren jarduera ez da Euskaditik ateratzen. % 14,1ek, aldiz, eremu geografiko handiagoan jarduten dute. Lehenengo horien artean, kokatuta dauden lurralde historikoan garatzen dute jarduera erakundeen % 41,2k, eta % 24,8k lurralde batean baino gehiagoan egiten dute lan (Euskadi mailan). Euskadin jarduten duten gainerako erakundeei dagokienez, % 19,9 tokiko eremuan (eskualdean, udalerrian edo eremu txikiagoan) jarduten duten erakundeak dira.

ERAKUNDEEN BANAKETA, JARDUERA EREMU GEOGRAFIKOAREN ARABERA. (%)




## 2.4. ZER KONTINGENTZIA ARTATZEN DITUZTE?

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko 5 erakundetik 1 inguruk bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak artatzen ditu; % 15,2k, desgaitasuna duten pertsonak; % 7,8k, babesgabetasun-egoeran daudenak; eta azkenik, % 3,9k, mendekotasun-egoeran daudenak edo mendekotasunean egoteko arriskuan daudenak.

Gainerakoan, hau da, erakundeen % 52,1en jardueraren hartzaille nagusiak beste zaugarritasun- edo desberdintasun-egoera batzuk bizi dituzten pertsonak eta abar dira.

ERAKUNDEEN BANAKETA, ARTATZEN DUTEN KONTINGENTZIAREN ARABERA. (%)




## 2.5. ZER KOLEKTIBORI ZUZENDUTA DAUDE?

EHSSko erakundeek askotariko hartzailleak dituzte, haien artean nabarmentzekoak dira :


- Hurrek, nerabeek eta haien familiak osatzen dute kontsultatutako erakundeen % 19,4ren kolektibo nagusia.
- Adinekoak dira erakundeen % 14,5en kolektibo nagusia.
- Desgaitasuna duten pertsonak eta haien familiak dira kontsultatutako erakundeen % 12,9ren kolektibo nagusia.
- Txirotasun-egoeran edo arriskuan dauden pertsonak dira erakundeen % 10,9rena.
- Emakumeak % 10,8rentzat.

ERAKUNDEEN BANAKETA, EKINTZA ZER KOLEKTIBO NAGUSIRI BIDERATZEN DIREN KONTUAN HARTUTA. (%)



Kolektibo nagusia aintzat hartzeaz gain, erakunde batek arta ditzakeen pertsona guztiak ere aintzat hartzen baditugu, erakundeen erdiek baino gehiagok, gutxi gorabehera, emakumeei eta gazteei zerbitzuak eskaintzen dizkietela ikus dezakegu, neurri handiagoan edo txikiagoan. Gainera, erakundeen % 47,2k hurrekin, nerabeekin eta familiekin lan egiten dute. Era berean, nabarmena da migratzaileei (% 40,7), adineko pertsonari (% 38,9) eta pobrezia-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonari (% 38,4) laguntza ematen dieten erakundeen presentzia.

KOLEKTIBO BAKOITZARI ZUZENTZEN ZAIZKION ERAKUNDEAK. (%)



## 2.6. ZER JARDUERA GARATZEN DUTE?


EHSSko 10 erakundetik 8k, zerbitzuak eskaintzeaz gain, kontzientziarioekin eta eskubideen defentsarekin lotutako beste jarduerak sozial batzuk ere garatzen dituzte. Zerbitzuen hornikuntzaren bidez, erakundeek behar sozialei erantzuten diete eta baliabideak gerturatu dizkiete beharrak dituzten pertsoneri, baliabide horiek eskuratzea erraztuz. Gainerako erakundeak honela banatzen dira: eragin sozialarekin lotutako funtzio sozialak bakarrik egiten dituztenak (% 15,7) eta, neurri txikiagoan, zerbitzuak bakarrik ematen dituztenak (% 5,8).

ERAKUNDEEN BANAKETA, FUNTZIOEN ARABERA. (%)



Orokorrean, erakundeen % 88,6k zerbitzuren bat ematen dute (sarritan, gainera, beste funtzioaren bat ere izaten dute). Gainerako % 11,4k, berriz, eragin sozialarekin, sentsibilizazioarekin, ikerketarekin eta abarrekin lotutako jarduerak bakarrik egiten dituzte.

ERAKUNDEEN BANAKETA, ZERBITZUAK HORNITZEN DITUZTEN EDO EZ KONTUAN HARTUTA. (%)



Zerbitzuak hornitzen dituzten erakundeek 425 erabiltzaile artatzen dituzte batez beste, nahiz eta zerbitzuak hornitzen dituzten erakundeen erdiak 300 erabiltzaile baino gutxiago dituen urtean<sup>10</sup>.

Zerbitzuak ematen dituzten erakundeen % 29,8k erantzukizun publikoko zerbitzu-zorroetan aintzat hartutako zerbitzuak ematen dituzte<sup>11</sup> (gainera, gehiengoak zorro horietan aintzat hartu gabeko zerbitzuak ere ematen dituzte). Bestalde, beste % 70,2k erantzukizun publikoko zorroetan aintzat hartu gabeko zerbitzuak ematen dituzte.

<sup>10</sup> Erabiltzaileen estatistikak kalkulatzeko, zerbitzu motaren bat hornitzen duten erakundeak hartu ditugu kontuan eta erabiltzaileen artean 30.000 pertsona edo gehiago dituzten erakundeak baztertu egin ditugu, erakunde desitxuratzailatzat hartu ditugulako. Azken erakunde horien (hemendik aurrera, erakunde "outlinerrak") balioek nabarmen handitzen dute laginaren bariantza. Trimedia estatistikoa erabiltzea hautatu dugu sendoagoa delako (joera nagusiaren indizea da, eta aldakortasun maila altua duen aldagaiaren estimazioak egiteko erabilgarriena dela egiaztatu da).

<sup>11</sup> Zerbitzu bat erantzukizun publikokoa dela esaten da instituzio publikoek zerbitzu hori hartzaileentzat erabilgarria eta irisgarria izatea bermatu behar dutenean; araudietan eta instituzio horien eskumenekoak diren prestazioen eta zerbitzuen zorro edo katalogoetan arautzen dira erantzukizun publikoko zerbitzuak.

ZERBITZUAK EMATEN DITUZTEN ERAKUNDEEN BANAKETA, ERANTZUKIZUN PUBLIKOKO ZERBITZURIK DUTEN EDO EZ KONTUAN HARTUTA. (%)



Sektoreko erakundeek ematen dituzten zerbitzuen artean, hauek dira azpimarragarrienak: informazio- eta orientazio-zerbitzuak (% 19,3ren jarduera nagusia da), aisialdiko jarduerak (% 17,9), prestakuntza eta hezkuntza (% 11,2), gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea (% 10,5), komunitatearen garapena (% 7,6), laguntza soziala (% 5,7) eta esku-hartze psikosoziala (% 5,4).


ERAKUNDEEN BANAKETA, EMATEN DUTEN ZERBITZU NAGUSIAREN ARABERA. (%)



Hornitzen duten zerbitzu nagusiaz gain, kontsultatutako erakundeen erdiek baino gehiagok aisialdiko zerbitzuak (% 64,9) edo prestakuntza eta hezkuntzako zerbitzuak (% 61,6) hornitzen

dituzte. 2 erakundetik ia 1ek informazio- eta orientazio-zerbitzuak eskaintzen dituzte (% 52,7), eta gutxiagok eskaintzen dituzte gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzea (% 46,6), laguntza soziala (% 44,9), aholkularitza edo orientazioa (% 44,9) eta esku-hartze psikosoziala (% 40,9)

ZERBITZUETAKO BAKOITZA EMATEN DUTEN ERAKUNDEAK (%)



Intzidentzia sozialarekin lotutako erakundeek garatzen dituzten funtzio sozialen artean, nagusienak sentsibilizazioa (erakundeen % 52,6rentzat funtsezkoa da bere beste funtzio sozialen barruan) eta boluntariotzaren sustapena, elkar laguntza, parte-hartze soziala eta asoziazionismoa dira (% 18,1entzat intzidentzia-jarduera nagusia da).

ERAKUNDEEN BANAKETA, EGINDAKO GIZARTE-FUNTZIOAREN ARABERA. (%)





Jarduera nagusia edozein izanik ere, entitateen gehiengo zabalak sentsibilizazio-ekintzak egiten ditu (% 86,4). 10 erakundetik 7tan boluntariotzaren, elkarrekiko laguntzaren, parte-hartze sozialaren eta asoziazionismoaren sustapena egiten dute. Eta 10 erakundetik 6 inguruk eskubideak sustatu eta horien urraketa salatzen dute.

BESTE FUNTZIO SOZIALETAKO BAKOITZA EGITEN DUTEN ERAKUNDEAK. (%)



## 2.7. GIZARTERATZEKO ENPRESAK ETA ENPLEGUARAKO ZENTRO BEREZIAK

Hartzaileen talde jakin batzuk lan-munduan integratzea bilatzen eta sustatzen dute EHSSko erakunde batzuek. Gizarteratzeko enpresen eta enplegurako zentro berezien kasuan ikusten da hori, hartzaileak gizarte-desabantailan edo -bazterkerian dauden pertsonak<sup>12</sup> eta desgaitasuna duten pertsonak<sup>13</sup> baitira, erakunde horiek arautzen dituen araudiaren arabera.

EHSSko erakundeen % 1,2 lan-munduratzeko enpresak dira eta beste % 3,8 lan-munduratzeko enpresen sustatzaileak<sup>14</sup>. Horrenbestez, bazterkeria-egoeran dauden kolektiboak lan-merkatuan txertatzea dute helburu.

<sup>12</sup>Gizarteratzeko enpresaren definizioa: ondasunak edo zerbitzuak ekoizten dituzten egiturak dira, eta gizarte-desabantailan edo -bazterkerian dauden kolektiboak lan-merkatuara txertatzea eta ikasketa-prozesu egokiaren bitartez gizarteratzeko proiektu pertsonala gauza dezaten dute xede. Prozesu horrek kontuan hartzen ditu gaitasun sozialak, lanekoak, oinarriko prestakuntza, laneko kualifikazioa eta merkatuko ezagutzak lortzea, enplegarritasunerako baldintzak hobetu ahal izateko (azaroaren 11ko 182/2008 DEKRETUA, gizarteratzeko enpresen kalifikazioa arautu eta horietara sartu eta erregistratzeko prozedura ezartzen duena). Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2008/11/0806515a.pdf>

<sup>13</sup>Enplegu Zentro Berezien definizioa: desgaitasuna duten langileei lan emankorra eta ordaindua egiteko aukera ematea helburu duten enpresak, haien ezaugarri pertsonalei egokitutako lana, eta lan-merkatu arruntan barneratzea erraztuko diona. Bere ezaugarriak abenduaren 4ko 2273/1985 Errege Dekretuak arautzen ditu, desgaitasuna duten pertsonak gizarteratzeko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 42. artikuluan zehaztutako Enplegurako Zentro Berezien araudia onartzen duenak. Hemen eskuragarri: <https://www.boe.es/eli/es/rd/1985/12/04/2273/dof/spa/pdf>.

<sup>14</sup>Erakundeen banaketa, gizarte-enpresak diren edo ez diren kontuan hartuta, unibertsoa (Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen guztizkoa) oinarri hartuta kalkulatu da, ez lagina oinarri hartuta.

Kontsultatutako erakundeen %1,3 inguruk enplegu-zentro berezia dute. Zentro horiek desgaitasuna duten pertsonen laneratzea errazten dute.

ERAKUNDEAK, BEREZKO EZAUGARRI BATZUEN ARABERA (%)



### 3. PERTSONAK

#### 3.1. LANTALDEAK: BOLUNTARIOAK ETA SOLDATAPEKO LANGILEAK


EHSSko erakundeen % 61,1ek soldatapeko langileak dituzte lantaldeetan; aldiz, erakundeen % 38,9 borondatezko pertsonekin osatuta daude oso-osorik.

LANTALDEETAN SOLDATAPEKO LANGILEAK DITUZTEN ERAKUNDEAK (%)




Lantaldeetan boluntarioek duten presentziari dagokionez, erakundeen % 85etan boluntarioen presentzia esanguratsua da, erakundea osatzen dutenen erdia edo gehiago baitira. Egiaz, erakundeen % 38,9 oso-osorik boluntarioz osatuta daude.

ERAKUNDEEN BANAKETA, LANTALDEAN BOLUNTARIOEK DUTEN PISUAREN ARABERA. (%)



Horren antzera, ohikoena da soldatapeko langileak lantaldea osatzen duten pertsonen laurdena baino gutxiago izatea. Soldatapeko langileak erakundeen % 15,2tan soilik dira gehiengoa.

ERAKUNDEEN BANAKETA, LANTALDEETAN SOLDATAPEKO LANGILEEK DUTEN PISUAREN ARABERA. (%)



Erakunde batean boluntarioen bolumena 10 eta 50 pertsona artekoa (% 47,7) izatea da ohikoena. Ohikoena 10 boluntario izatea den arren, batezbestekoa 41 boluntariokoa da<sup>15</sup>, eta horietatik % 62,1 emakumeak dira.

ERAKUNDEEN BANAKETA, BOLUNTARIOEN BOLUMENAREN ETA BOLUNTARIOEN SEXUAREN ARABERA (%)




Erakundeek soldatapeko langileak dituztenean, 10 erakundetik 7tan baino apur bat gehiagotan soldatapeko langileen kopurua ez da 10 pertsonatik gorakoa izaten. Gainera, kasuen % 36,7tan, 3 pertsonak baino gutxiagok jasotzen dute ordainsaria. Erakundeen % 11,8k bakarri dituzte soldatapeko 50 langile baino gehiago.

Ohikoena soldatapeko 1 pertsona izatea den arren, batezbestekoa soldatapeko 17 pertsona ingurukoa da<sup>16</sup>, eta horietatik % 74 emakumeak dira.

<sup>15</sup> Boluntarioen estatistikak kalkulatzeko, 1.000 boluntario edo gehiago dituzten erakundeak baztertu dira, erakunde "outliertzat" jotzeagatik.

<sup>16</sup> Soldatapeko langileen estatistikak kalkulatzeko, soldatapeko langileak dituzten erakundeak hartu ditugu aintzat, eta baztertu egin ditugu soldatapeko 250 langile edo gehiago dituzten erakundeak, "outlier" erakundetzat jo ditugulako.


ERAKUNDEEN BANAKETA, SOLDATAPEKO PERTSONEN BOLUMENAREN ETA SOLDATAPEKO PERTSONEN SEXUAREN ARABERAKO ERAKETAREN ARABERA. (%)




Gutxi gorabehera, erakundeen % 10,6 inguruk soldatapeko langileen artean desgaitasuna duten pertsonak dituztela kalkulatu da (enplegu-zentro bereziak kontuan izan gabe)<sup>17</sup>.

Bestalde, erakundeen % 25,4 inguruk soldatapeko langileen artean espainiar nazionalitatea ez duten pertsonak dituzte (gizarteratze-prozesuan daudenen datuak aintzat hartu gabe)<sup>18</sup>.

DESGAITASUN ZIURTAGIRIA DUTEN SOLDATAPEKO LANGILEAK DITUZTEN ERAKUNDEAK. (%)



ESPAINIARRA EZ DEN NAZIONALITATEKO SOLDATAPEKO LANGILEAK DITUZTEN ERAKUNDEAK (%)



Soldatapeko langileen % 69,6k lanaldi osoko kontratua dute; % 29,2k, berriz, lanaldi partzialeko kontratua dute. Emakumeei dagozkie 10 kontratu partzialetik 8.

SOLDATAPEKO LANGILEEN BANAKETA, LANALDI MOTAREN ETA LANALDI PARTZIALEKO SOLDATAPEKO LANGILEEN SEXUAREN ARABERAKO OSAERAREN ARABERA. (%)



<sup>17</sup> Datuak tentu pixka batez hartu behar dira, galdera horren erantzun kopurua bereziki txikia izan baita eta ehunekoa kalkulatzeko erabili den laginak +/- % 6,1eko errore-marjina baitu.

<sup>18</sup> Datuak tentu pixka batez hartu behar dira, galdera horren erantzun kopurua bereziki txikia izan baita eta ehunekoa kalkulatzeko erabili den laginak +/- % 6,2ko errore-marjina baitu.

Kontratu motari dagokionez, soldatapeko langileen % 77k kontratu mugagabea edo finkoa dute, eta gainerakoek beste kontratu motaren bat dute (aldi baterakoa, aldizkako kontratu finkoa eta abar).

SOLDATAPEKO LANGILEEN BANAKETA, KONTRATU MOTAREN ARABERA. (%)



ARDURA POSTU BAT DUTEN SOLDATAPEKO LANGILEAK, SEXUAREN ARABERA. (%)

**Erantzukizun postua - ORDAINPEKO LANGILEAK**

**%12** Erakundearen kargu edo erantzukizun ordaindutako bat beren gain hartu duten pertsonak



Langileen % 12 inguruk ordaindutako ardura-posturen bat edo ardura motaren bat hartzen dute beren gain erakundearen. Gizonezkoen artean (% 13,6) pixka bat handiagoa da tasa hori, emakumezkoen artean (% 11,6) baino.

**3.2. BAZKIDEAK ETA EMAILEAK**

EHSSko elkarteek, batez beste, 310 bazkide dituzte, nahiz eta kontuan izan behar den elkarten erdia, gutxi gorabehera, 115 bazkidez edo gutxiagoz osatuta daudela<sup>19</sup>. Gutxi gorabehera, 10 bazkidetik 6 emakumezkoak dira, eta 4 gizonezkoak<sup>20</sup>.

BAZKIDEEN OSAERA, SEXUAREN ARABERA. % ETA BATEZBESTEKOAK



EMAILEEN OSAERA, MOTAREN ARABERA. % ETA BATEZBESTEKOAK



Kalkuluen arabera, sektoreko erakundeek % 52,3 inguruk emaileak ditu; batez ere, ohiko emaileak (kasuen % 83,9tan).

Batez bestean, erakunde bakoitzak ohikotasunez diru-ekarpenak egiten dituzten 72,1 pertsona ditu, baina erakundeek erdiek ez dute 14 emaile erregular baino gehiago<sup>21</sup>.

<sup>19</sup> Bazkideen estatistikak kalkulatzeko, elkartearen figura juridikoa duten erakundeak hartu dira kontuan (EHSSko erakundeek % 90 dira) eta 5.000 bazkide edo gehiago dituzten erakundeak baztertu dira, "outlier" erakundetzat jo ditugulako.

<sup>20</sup> Bazkideen sexuaren araberako banakapena kalkulatzeko, elkartearen figura juridikoa duten erakundeak hartu dira aintzat.

<sup>21</sup> Ohiko emaileen estatistikak kalkulatzeko, 1.000 emaile edo gehiago dituzten erakundeak baztertu ditugu, "outlier" erakundetzat jo ditugulako.


## 4. BALIABIDE EKONOMIKOAK

### 4.1. ZER BALIABIDE EKONOMIKO DITUZTE?

EHSSren barruan, erakundeen % 75,4 txikiak edo ertainak dira. Hau da, horien diru-sarrerren bolumena ez da 300.000 €-koa baino handiagoa. Egiaz, erakunde horien % 50 inguruk administratzen duten aurrekontua 65.052 € baino txikiagoa da.

Bestetik, EHSSko erakundeen % 24,6 handiak edo oso handiak dira. Hortaz, bolumen ekonomiko oso ezberdinak dituzten erakundeak biltzen ditu EHSSk. Erakundeen % 10,6k milioi eta erdi euro baino gehiagoko aurrekontuak kudeatzen dituzte. Aldiz, sektoreko entitateen % 20,6ren diru-sarrerak 12.000 €-tik beherakoak dira.

ERAKUNDEEN BANAKETA, 2022KO DIRU SARREREN ARABERA. (%)



2022an, 10 erakundetik 4ren emaitza ekonomikoa kontuen oreka izan zen.

Erakundeen % 32,6k superabita izan zuen, eta % 26,6k defizita.


ERAKUNDEEN BANAKETA, 2022KO EKITALDIKO EMAITZAREN ARABERA. (%)



#### 4.2. NONDIK DATOR FINANTZIAZIOA?

Erakundeen diru-sarrerren % 64,8 finantzaketa publikoko iturrietatik datoz, eta % 35,2 finantzaketa pribatutik. Sektorearen finantzaketa propioa (dohaintzak, zerbitzuak ematea eta produktuak saltzea) % 26,6 ingurukoa da. Erakundeen finantzaketa-iturri nagusia dirulaguntza publikoak dira, hau da, erakundeen diru-sarrera guztien % 29,5. Ondoren, hitzarmen publikoak datoz, erakundeen diru-sarrerren % 24,1ekin. Bi finantzaketa-iturri horiek sektorearen diru-sarrerren erdia baino gehixeago dira<sup>22</sup>

DIRU SARREREN ITURRI BAKOITZAREN PISUA ERLATIBOA, SEKTOREKO FINANTZIAZIO OSOAREKIKO. (%)




#### 4.3. ZERTARA BIDERATZEN DITUZTE BALIABIDE EKONOMIKOAK?

Gastuaren xedearen arabera, jarduera edo emandako zerbitzuak ordaintzeko erabiltzen dute erakundeek gastuaren % 79,7. Aldiz, kudeaketako zeharkako gastuei gastu osoaren % 14 dagokie, batez beste.

<sup>22</sup> Finantzaketa-iturri bakoitzak sektorearen finantzaketa osoan duen pisua kalkulatzeko, finantzaketa-iturri bakoitzaren batez bestekoa erreferentzia gisa erabiltzen zen aurreko azterlanetan ez bezala, kalkulu bat egin da erakunde bakoitzaren bolumen ekonomikoa eta finantzaketa-iturri bakoitzak erakundeetan duen pisua biderkatuta. Horrek aldaketa metodologiko bat dakar adierazle horren kalkuluan, eta kontuan hartu behar da konparaziozko analisi posibleetan




GASTU MOTA BAKOITZAREN PISU ERLATIBOA, XEDEAREN ARABERA. (%)




Gastu motaren arabera, erakundeek langileengana bideratzen dute gastuaren % 37,1. Xede sozialera edo hornikuntzara bideratutako erosketak edo kontsumoak dira gastuaren % 29,2.

GASTU MOTA BAKOITZAREN PISU ERLATIBOA, IZAERAREN ARABERA. (%)



3 erakundetik 1 inguruk kanpoko kontularitzako auditoria egin du azken hiru urteotan.

ERAKUNDEEN BANAKETA, KONTUEN AUDITORETZA EGITEN DUTEN EDO EZ KONTUAN HARTUTA



## 5. KUDEAKETA- ETA KOMUNIKAZIO-ESTRATEGIAK

### 5.1. ZER KUDEAKETA TRESNA ERABILTZEN DITUZTE?


Erakundeek askotariko kudeaketa-tresnak dituzte (ebaluazio-sistemak, berdintasun-planak, kode etikoak eta abar), entitateen funtzionamendu eraginkorrari laguntzen diotenak. Ohikoa ez den arren, kasu batzuetan formalizatuta daude tresna horiek. Beste batzuetan, berriz, ekintza espezifikoagoen bidez gauzatzen dira. Ebaluazio-sistemak eta berdintasun-planak dira testuinguru honetan gehien estandarizatutako tresnen adibide batzuk.

Erakundeen % 31,2k kode etikoa dute, eta entitateen % 37,7k kode horrekin zerikusia duten ekintzak garatzen dituzte, idatziz jasotako koderik izan ez arren. Erakundeen % 41,9k proiektuen edo jardueren emaitzak edo inpaktua ebaluatzeko sistema formalizatua dute, eta % 35,8k horrekin lotutako ekintzak garatzen dituzte.

10 erakundetatik 7k baino apur bat gehiagok gizonen eta emakumeen arteko berdintasunarekin lotutako ekintzak garatzen dituzte, eta % 32,2k Berdintasun Plana dute, idatziz eta formalizatuta. Entitateen % 50,4k diskriminaziorik ezarekin lotutako ekintzak garatzen dituzte. Jazarpen-protokoloa idatziz jasota eta formalizatuta duten erakundeak % 29,1 dira, eta % 22,7k horrekin lotutako ekintzak egiten dituzte.

Entitateen % 31k gardentasunarekin lotutako ekintzak garatzen dituzte, eta % 11,7k Gardentasun Plan bat dute, formalizatuta.


ERAKUNDEEN BANAKETA, ZENBAIT KUDEAKETA TRESNA ZENBATERAINO BARNERATUTA DITUZTEN KONTUAN HARTUTA. (%)



## 5.2. ZER BESTE KUDEAKETA PRAKTIKA BARNERATU DITUZTE?

Erakundeen % 14,4k kalitate-ziurtagiriren bat dute. Horietatik % 68,1ek ziurtagiri bat dute; % 22,6k, bi; eta %9,3k, 3 edo gehiago. Ohikoenak ISO ziurtagiriak dira, eta, gutxiago, Euskaliten edo Plena Inclusionen ziurtagiriak.


ERAKUNDEEN BANAKETA, KALITATE ZIURTAGIRIRIK DUTEN EDO EZ KONTUAN HARTUTA. (%)



Erakundeen % 85,2tan, erabakiak hartzen dituen erakundeko organoren batean edo batzorderen batean parte hartzen dute boluntarioek. Erakundeen % 16,3tan boluntarioen erdiak edo gehiagok hartzen dute parte, eta % 23,9tan, denek.

Soldatapeko langileak dituzten erakundeen % 38,3tan, langileen erdiek edo gehiagok erabakiak hartzen dituen erakundeko organoren batean edo batzorderen batean parte hartzen dute. Kasuen % 27,8tan, langile guztiak hartzen dute parte batzorde edo organo horietan<sup>23</sup>.

ERAKUNDEEN BANAKETA, ERABAKIAK HARTZEN DITUZTEN ERAKUNDEKO ORGANOETAN EDO BATZORDEETAN BOLUNTARIOEK ETA SOLDATAPEKO LANGILEEK DUTEN PISUAREN ARABERA. (%)




Erakundeen % 62,5etan, soldatarik baxuenaren eta altuenaren arteko aldea, gehienez, heren batekoa izaten da; hau da, erakundeetan soldata txikiena duenak soldata handiena duenaren % 33 kobratzen du gutxienez<sup>24</sup>.

<sup>23</sup> Datuak tentu pixka batez hartu behar dira, galdera horren erantzun kopurua bereziki txikia izan baita eta ehunekoa kalkulatzeko erabili den laginak +/-% 5,4ko errore-marjina baitu.


<sup>24</sup> Datu hori kalkulatzeko soldatapeko langile bat baino gehiago dituzten erakundeak hartu ditugu kontuan. Datuak tentu pixka batez hartu behar dira, erantzun kopurua bereziki txikia izan baita eta laginak +/-% 7,6ko errore-marjina inplikatzeko baitu.

ERAKUNDEEN BANAKETA, SOLDATARIK BAXUENAREN ETA ALTUENAREN ARTEKO ALDEAREN ARABERA. (%)



Bestetik, EHSSko erakundeek % 21,2 ari dira 2030 Agenda txertatzen, eta haien jarduerak eta estrategia agenda horrekin lotutako erakundeek % 36k hausnarketa bat hasi dute 2030 Agenda txertatzeko, edo dagoeneko harekin lotutako ekintzak eta jarduerak egiten ari dira. Gainerako erakundeek, 10etik 4 inguruk, oraindik ez dute gaiarekin lotutako hausnarketarik hasi.

ERAKUNDEEN BANAKETA, ERAKUNDEAN 2030 AGENDA TXERTATU DUTEN EDO EZ KONTUAN HARTUTA. (%)




### 5.3. ZER INFORMAZIO HELARAZTEN DIETE INTERES TALDEEI?

Erakundeek % 91,2 inguruk entitatearen urteko memoriari buruzko informazioa helarazi ohi diete aldizka interes-taldeeii, eta % 88k kontuen egoeraren berri ematen diete.

Gainera, erakundeek % 79,7k entitatearen misioari eta balioei buruzko informazioa nahiz gobernu-entitatearen eraketari buruzkoa helarazi ohi diete aldizka interes-taldeeii, eta erakundeek % 78,9k gobernu-entitatearen osakerari buruzko informazioa bidaltzen diete. Neurri txikiagoan bada ere, erakundeek ehuneko esanguratsu batek jakinarazten die interes-taldeeii helburuak zenbateraino bete dituzten (% 66,9) eta jarduketek zer inpaktu izan duten (% 61,2). Erakundeek entitateko pertsonen buruzko informazioa igortzea ez da horren ohikoa (% 45,3k egiten dute).

ERAKUNDEEN BANAKETA, INTERES TALDEEI ASKOTARIKO INFORMAZIOA HELARAZI OHI DIETEN KONTUAN HARTUTA.  
(%)



## 6. HARREMANAK


### 6.1. NOLAKOA DA BESTE ERAGILE BATZUEKIKO HARREMANA?

Herri-administrazioko organismo guztien artean, erakundeek batez ere udalekin dute harreman estua. Erakundeen % 79,1en esanetan, harreman dezente edo harreman handia dute udal mailako administrazioarekin; % 61,1ek, foru-aldundiekin; eta % 48,3k, Eusko Jaurlaritzarekin.

Halaber, gizarte-mugimenduekin ere loturak dituzte (kontsultatutako entitateen % 65,5ek haiekin harreman dezente edo harreman handia dutela diote) eta unibertsitateekin (% 38,8) ere bai.

Beste eragile batzuekiko harremana nabarmen txikiagoa da. Zehazki, sektoreko erakundeen % 30,5ek esan dute beste sektore batzuetako enprekin harreman edo lankidetzaren nahiko estua dutela; % 28,9k banku-fundazioekin; % 23,8k Elizarekin; % 17,5ek alderdi politikoekin; % 14k enpresa-elkarteekin; eta % 12,4k sindikatuarekin.

ASKOTARIKO ERAGILE SOZIALEKIN HARREMAN EDO ELKARLAN DEZENTE EDO HANDIA DUTEN ERAKUNDEEN BANAKETA. (%)



## 6.2. NOLAKOAK DIRA EHSS-KO HARREMANAK?

Erakundeen % 65,8 bigarren mailako erakundeak edo egitasmoak dira (sareak, federazioak, taldeak, plataformak...), eta horrek adierazten du antzeko erakundeen artean harremana dagoela, eta hausnarketarako eta elkarri informazioa emateko espazioak partekatzen dituztela.

Batez beste, erakunde bakoitza halako 3 sareren parte da, nahiz eta ohikoena bigarren mailako erakunde bakar bateko kidea izatea den.

ERAKUNDEEN BANAKETA, SAREREN BATEN PARTE DIREN EDO EZ KONTUAN HARTUTA. (%)



## 7. EHSSren ERRONKA BATZUK

Erakundeek datozen urteetarako identifikatzen dituzten sektoreko erronka nagusietan eragina dute aldaketa orokorrek (sozialek, ekonomikoek, politikoek...). Gainera, atzera begiratuta, ez dira erronka berriak, azken urteetan mantendu direnak baizik. Hori dela eta, ahalegin berezia egin dugu erakundeek 2023ko Barometroaren esparruan aipatutako erronkak identifikatzeko eta definitzeko, 2020ko EHSSren Liburu Zurian identifikatutako erronkekiko koherentzia mantenduta; azken horiek, aldi berean, lotuta zeuden Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala Sustatzeko Estrategiaren arloekin.

**Jasangarritasunak** EHSSko erakundeen erronka nagusia izaten jarraitzen du, bai ikuspegi ekonomikotik, bai ikuspegi sozialetik. Egiaz, erakundeen % 30en ustez, datozen urteetan landu beharreko erronka nagusietako bat da jasangarritasuna. Ikuspegi ekonomiko batetik, finantzaketa-iturrien dibertsifikazioa eta egonkortasun ekonomikoa funtsezko faktoreak dira erakunde hauen bideragarritasuna eta hazkunde jarraitua ziurtatzeko. Alderdi sozialari dagokionez, erakunde hauen oinarri soziala indartuko duten parte-hartzerako espazioak eskaintzearen garrantzia nabarmendu da. Horrekin lotuta, arreta berezia jarri behar zaio boluntarioak babestu eta zaintzeari, horien parte-hartzea bereziki kaltetu baita azken urteetan.

Datozen urteetan **gizarte zibilaren sentsibilizazioari eta aitortzari** heltzeko beharra nabarmendu du EHSSko 5 erakundetik 1ek. Erakundeek gizarteko erronkei eta arazoei erantzuteko egiten duten lanaren gaineko sentsibilizazioa eta kontzientzia sozialaren sustapena funtsezko zutabeak dira. Horretarako, informazioa modu eraginkorrean zabaldu behar da, gizarte zibila kontzientziatu behar da eta kolektiborik zaurgarrienen aurrean dituzten erronkak hobeto ulertu behar dira.

Aldi berean, hirugarren sektore sozialeko erakundeek egindako lana aitortzea eta baloratzea ere garrantzitsua da. Erakunde horiek funtzio oso garrantzitsua betetzen dute pertsona eta komunitate askoren bizi-kalitatea hobetzearekin lotuta. Jardueraren emaitzak, haren balio erantsia eta sortzen duen inpaktu soziala ikusaraztea funtsezkoa da; batez ere, kohesio sozialarekin eta pertsonarik zaurgarrienen eskubideak babestearekin lotuta.

Era berean, **barneko eta kanpoko harremanak indartzen** jarraitzearekin lotutako erronka nabarmendu du 5 erakundetik 1ek. Lehenengoei dagokienez, EHSS egituratzeko prozesuekin aurrera jarraitzea funtsezko mugarria da, alde batetik, sareen posizioa finkatzeko eta sare horietan geroz eta erakunde gehiago egituratzeko. Halaber, erakundeen arteko lankidetzarako eta kooperaziorako espazioak sortzeko apustua egin da, ikaskuntzak partekatzeko, aliantzak sortzeko eta are lankidetzaproiektuak ekiteko ere.

Kanpoko harremanei dagokienez, aliantzak sortzeko beste eragile sozial batzuekin dituzten harreman-ereduetan aurrerapausoak ematea erronka garrantzitsua da oraindik ere. Horretarako, badirudi funtsezkoa dela EHSSren posizio soziala finkatzea, eragile sozial eta funtsezko solaskide gisa, bai administrazio publikoarekin, bai beste eragile batzuekin.



Etengabe aldatzen ari den ingurune batean, hirugarren sektore sozialeko erakundeek prest egon behar dute arazo berriei eta gizartearen beharren aldaketei aurre egiteko. Hori dela eta, funtsezkoa dirudi sortzen ari diren **behar sozial berriei emateko erantzunen** bilaketan aurrera egiten jarraitzeak. Inguruko eskari eta aldaketa berrietara egokitzeko gaitasuna oso garrantzitsua da hirugarren sektore sozialak esanguratsua eta eraginkorra izaten jarrai dezan gizartearen ongizatea eta kohesioa sustatzeko zereginen.

Ebidentzian geratu da **eraldaketa digitala eta berrikuntza soziala** erakundeak indartzeko ardatz garrantzitsuak direla. Alde horretatik, eraldaketa digitalaren esparruan berrikuntzarako sareak eta digitalizazio-prozesuak sortzea erronka garrantzitsuak dira.

Halaber, **erakundea indartzearekin** lotutako beste alderdi batzuk (lanpostuak, egonkortasuna, etab.) eta **EHSSren ezaugarriak** eta jardueraren balio berdingabea bermatzeko garrantzia identifikatu dugu, bai zerbitzuen hornikuntzaren arloan, bai intzidentzia sozialaren, parte-hartzearen eta ezagutzaren sustapenaren arloan, bai eskubideen gauzatze eraginkorraren arloan.



## 8. DATUEN ALDERAKETA

Jarraian, denboran zeharreko ikuspegia eskaintzeko, eskuragarri dauden azken datuen askotariko adierazleak bildu ditugu tauletan. Zehazki, 2014ko, 2019ko, 2021eko eta 2023ko datuak dira. EHSSko aldaketak eta joerak ikustea ahalbidetzen du alderaketa honek. Tauletan, 2021ean eta 2023an jasotako datuen arteko desberdintasunak aipatu ditugu batez ere, azkenaldiko bilakaera ikusi ahal izateko.

Azken urteetan, EHSSk errealitate berrietara egokitu behar izan du. Inpaktu nabarmenek eragina izan dute erakundeen ezaugarriak eta jarduera ulertzea ahalbidetzen duten adierazle giltzarrietan, eta nolabaiteko eragina izaten jarraituko dutela aurreikusten da.

Azken bi urteetan aldaketa garrantzitsuak izaten jarraitu du EHSSk. Hala, gutxi gorabehera 226 erakunde berri batu dira sektorerara. Horrek agerian uzten du euskal gizarteko ehun soziala etengabe eta nabarmen hazten ari dela. Halaber, nabarmenezkoa da 84 erakunde inguruk baja eman dutela edo jarduerarik ez dutela identifikatu dugula. Orokorrean, erakunde kopuruak 142 erakundeko hazkunde garbia izan du 2021arekin alderatuta. Hala, 1.000 biztanleko erakunde kopuruaren tasa apur bat hazi da eta 1,94koa da gaur egun.

Kalkulatutako zifrek iradokitzen dutenez, nabarmen hazi da EHSSn soldatapean eta modu boluntarioan parte hartzen duten pertsonen guztizko kopurua. Gainera, pandemiaren eta geldialdiaren ondoren, nabarmendu beharrekoa da hazkunde absolutu handia izan duela —333 milioi €— EHSSko erakundeek kudeatutako bolumen ekonomikoak. Bolumen ekonomiko nabarmen hazi bada ere, termino erlatiboetan mantendu egin da. Hau da, diru-sarreraren bolumena hazteak ez du ekarri BPGari egindako ekarpena haztea. Izan ere, gainerako sektoreek jaitsiera nabarmena izan zuten pandemiaren urteetan, baina EHSSk pandemiaren aurreko antzeko bolumen ekonomiko mantentzea lortu zuen; hala, errebote-efektua izatea saihestu zuen, eta epe ertainean eta luzean jasan zituen ondorioak.

Pandemiak ondorio nabarmenak izan zituen erakundeen jardueran. Hala, aisialdiko zerbitzuak hornitzen dituzten erakundeen edo salaketa-jarduerak egiten dituztenen ehuneko asko jaitsi zen 2019 eta 2021 artean. Dena den, osasun-krisia gainditu ondoren eta erakundeetako aurrez aurreko jarduera arrunta berreskuratu ondoren, pandemiaren aurreko mailaren antzeko ehunekoetara itzuli dira bi adierazleak. Hortaz, agerian geratu da egoera koiunturala zela. Gainera, nabarmen igo da jardueraren zati bat, gutxienez, emakumeen behar espezifikoaren arretara bideratzen duten erakundeen ehunekoak. EHSS indartzeko eta garrantzitsua izaten jarraitzeko, funtsezkoa da erakundeak moldagarriak izatea, behar sozial aldakorrei (genero-gaiekin lotutakoak barne) erantzuteko.

Bestetik, nabarmenezkoa da 5 urte baino gutxiago dituzten erakundeen kopurua: EHSSko 5 erakundetik ia 1 da horrelakoa. Egitasmo sozialek parte-hartze soziala bideratzeko egiturak sortzeko duten gaitasuna erakusten du horrek.

Sektore oso feminizatua izaten jarraitzen du EHSSk. Azken urteetako joerari dagokionez, emakumeen kopurua hazi egin da soldatapeko langileen artean —soldatapeko 4 langiletik ia 3

dira emakumeak—, eta murriztu egin da emakumezko boluntarioen ehunekoa. Aurreko urteetan bazirudien EHSSko erakundeetako boluntario taldea feminizatzeko joera zegoela, baina orain badirudi joera hori gelditu egin dela nolabait<sup>25</sup>, bai Euskadin, bai Estatuko gainerako lekuetan<sup>26</sup>.

Halaber, soldatapeko pertsonen zifra absolutua eta soldatapeko langileak dituzten erakundeen ehunekoa hazi egin dela ikus daiteke. Hazkunde horrek iradokitzen duenez, posible da EHSS pixkanaka profesionalizatzen aritzea, ziur asko, zereginak gero eta konplexuagoak direlako eta profil espezializatuak behar direlako. Hortaz, EHSSk erronka bat du aurrean, lantaldeak osatzeko orduan oreka berriak kudeatzearekin lotuta.

Bolumen ekonomikoarekin lotuta, apur bat murriztu da elkarte txiki eta ertainen (PYMAS) ehunekoa, bereziki txikienen artean. Aldiz, erakunde handien eta oso handien pisua hazi egin da EHSSn. Gainera, %9 hazi da superabita duten erakundeen ehunekoa. EHSSren hazkunde ekonomikorako nolabaiteko joera erakutsi lezake horrek. Hala ere, hazkunde hori ez da zuzenean islatzen sektoreak BPGari egiten dion ekarpenean; ziur asko, analisi xeheagoa behar duten testuinguruko beste faktore batzuen ondorioz gertatzen da hori.

Kudeaketa-tresnei dagokienez, gardentasunarekin lotutako ekintzak egiten dituzten erakundeen ehunekoa nabarmen hazi dela ikusten da. Erakundeek haien jarduerak, osaera eta baliabideak modu irekian komunikatzeko egiten duten ahalegin handia erakusten du hazkunde horrek.

Bigarren eta hirugarren mailako erakundeei dagokienez, sare baten parte diren erakundeen ehunekoa hazi egin dela ikusten da, eta EHSS egituratzeko prozesuan etengabeko aurrerapausoak ematen ari direla iradokitzen du horrek. Hazkunde hori garrantzitsua da, erakundeen %20 inguru gazteak direla kontuan hartzen badugu. Bizi-zikloaren hasierako etapetan, erakunde gazteak ez dira sareetan hain integratuta egoten. Hala ere, EHSSren egituratzeak aurrera jarraitu du.

Azkenik, ikuspegi zabalagoarekin aztertuta, joera interesgarria ikusten da Gipuzkoako eta Arabako azken datuetan. Lurralde horietako hazkundera azkarragoa da Bizkaikoa baino. Hala, lurralde historikoen arteko aldeak murrizten ari direla pentsa dezakegu, adierazle giltzarriak dagokienez. Aurrerantzeko diagnostikoetan arreta berezia jarri beharko zaio alderdi horri.

<sup>25</sup> Eusko Jaurlaritza (2023). *Boluntariotza eta partaidetza sozialerako beste modu batzuk Euskadin*. (Argitaratzeko)

<sup>26</sup> Espainiako Boluntariotzaren Plataforma (2023). *La acción voluntaria en 2022*. Hemen eskuragarri: <https://plataformavoluntariado.org/wp-content/uploads/2022/11/laaccionvoluntaria-2022.pdf>

## NORTASUNA ETA ZIFRA NAGUSIAK

Txostena	Liburu Zuria 2015	Liburu Zuria 2020	2021eko barometroa	2023ko barometroa	Desberdintasuna 2023-2021
<b>Datuen bilketa-data</b>	2014	2019	2021	<b>2023</b>	
Erakunde-kopurua	3.500	3.938	4.117	<b>4.259</b>	142
Erakunde-kopurua 1.000 biztanleko	1,6	1,8	1,88	<b>1,94</b>	0
Boluntarioak	125.203	158.599	160.493	<b>168.291</b>	7.798
Ordaindutako pertsonak	35.907	38.525	39.916	<b>45.624</b>	5.708
Kudeatutako bolumen ekonomikoa erreferentziako lurraldeko BPGd-aren %	2,2	2,3	2,4	<b>2,4</b>	0
Sektoreko erakundeek maneiatutako bolumen ekonomikoa (milioi eurotan)	1.451	1.736	1.712	<b>2.045</b>	333
Pertsona eta familia hartzaileek zuzenean eraturako erakundeen %	49,3	47,6	43,3	<b>46,4</b>	3,1
Onura publikoko aitortpena duten erakundeen %	27	29,1	28,8	<b>31,7</b>	2,9
Elkarteen % sektoreko erakunde guztiekiko	89,6	89,9	90,3	<b>90,9</b>	0,6
Laneratzeko enpresen sustatzaile diren erakundeen %	-	3,2	3,0	<b>3,8</b>	0,8
Bigarren edo hirugarren mailako erakundeen kopurua (sareak)	85	87	87	<b>87</b>	0,0

## JARDUERA

Txostena	Liburu Zuria 2015	Liburu Zuria 2020	2021eko barometroa	2023ko barometroa	Desberdintasuna 2023-2021
<b>Datuen bilketa-data</b>	2014	2019	2021	<b>2023</b>	
Zeharkako esparru sozialeko (edo zibikoko) erakundeen %	34	36,5	37,1	<b>37,5</b>	0,4
Gizarte-zerbitzuen arloko erakundeen %	25,3	23,3	22,5	<b>22,2</b>	-0,3
Ibilbide zabaleko (20 urte baino gehiagokoa) erakundeen %	42	33,8	35,5	<b>36,2</b>	0,7
Erakunde gazteen (5 urte baino gutxiagoko ibilbidea) %	13	20,0	17,3	<b>18,2</b>	0,9
Autonomia-erkidegoaren esparrua gainditzen duten (estatukoa edo nazioartekoa) erakundeen %	15,2	15,5	12,0	<b>14,1</b>	2,1
Lurraldean (Euskadin eta lurralde historikoetan) lan egiten duten erakundeen %	58	63,4	67,0	<b>66,0</b>	-1,0
Tokiko mailan (eskualdea, udalerrria edo esparru txikiagokoa) lan egiten duten erakundeen %	27	21,1	21,0	<b>19,9</b>	-1,1
Jarduera emakumeei (neurri batean gutxienez) zuzentzen dieten erakundeen %	48	49,3	49,7	<b>59,2</b>	9,5
Zerbitzuak ematen dituzten erakundeen %	93	85,8	89,1	<b>88,6</b>	-0,5
Zerbitzuak ematea ez den beste jardueraren batzuk (beste funtzio sozial batzuk) egiten dituzten erakundeen %	75	92,5	96,4	<b>94,3</b>	-2,1
Aisialdiko zerbitzuak ematen dituzten erakundeen %	55	62,2	51,8	<b>56,9</b>	5,1
Salaketa-jarduerak egiten dituzten erakundeen %	45	57,9	49,3	<b>57,8</b>	8,5

## PERTSONAK

Txostena	Liburu Zuria 2015	Liburu Zuria 2020	2021eko barometroa	2023ko barometroa	Desberdintasuna 2023-2021
<b>Datuen bilketa-data</b>	2014	2019	2021	<b>2023</b>	
Emaileak (ohikoak edo aldizkakoak) dituzten erakundeen %	-	44,1	46,6	52,3	5,7
Batez ere boluntarioz osatutako (langileen % 50 edo gehiago) erakundeen %	87	87,9	89,1	85,0	-4,1
Oso-osorik boluntarioz osatutako erakundeen %	46	42,8	43,5	38,9	-4,6
Soldatapeko langileak dituzten erakundeen % (boluntarioak eta soldatapeko langileak dituzte)	54	57,2	56,5	61,1	4,6
Kontratutako 50 pertsona baino gehiago dituzten erakundeen % (soldatapeko langileak dituzten erakundeen guztizkoarekiko)	10	9,4	9,7	11,7	2,0
Kontratutako 3 pertsona baino gutxiago dituzten erakundeen % (soldatapeko langileak dituzten erakundeen guztizkoarekiko)	38	35,7	30,0	36,7	6,7
Gehienez 10 soldatapeko langile dituzten erakunde txikien eta ertainen % (soldatapeko langileak dituzten erakundeen guztizkoarekiko)	71,1	71,7	70,7	71,4	0,7
Emakumeen batez besteko % boluntarioen artean	56,5	59,5	66,5	62,1	-4,4
Emakumeen batez besteko % soldatapeko langileen artean	68,2	70,5	72,9	74,0	1,1

## BALIABIDE EKONOMIKOAK

Txostena	Liburu Zuria 2015	Liburu Zuria 2020	2021eko barometroa	2023ko barometroa	Desberdintasuna 2023-2021
<b>Datuen bilketa-data</b>	2014	2019	2021	<b>2023</b>	
1 milioi eta erdi euro baino gehiago kudeatzen dituzten erakundeen %	9	7,6	7,5	11,1	3,6
12.000 euro edo gutxiago kudeatzen dituzten erakundeen %	32	31,7	29,2	20,6	-8,6
Emaizta ekonomikoa superabita izan duten erakundeen %	-	26,9	23,6	32,6	9,0
Sektoreko finantziazio publikoaren batez besteko %	55,5	53,6	54,1	51,2	-2,9
Hitzarmen eta kontratu publiko bidezko finantziazio publikoaren batez besteko %, sektorearen finantziazio osoarekiko	17,9	16,3	15,5	14,0	-1,5
Sektoreko finantziazio propioaren (dohaintzak, zerbitzuak ematea, salmentak) batez besteko %	38,1	37,8	39,5	42,0	2,5
Dirulaguntza publikoen bidezko finantziazioaren %, finantziazio osoarekiko	37,1	38,1	37,7	37,0	-0,7
Zuzenean jardueretara eta zerbitzuetara bideratutako erakundeen gastuaren %	85,4	82,6	82,7	79,7	-3,0
Kanpoko kontu-auditoritzaren bat egin duten erakundeen %	26	28	32	33,4	1,4

## KUDEAKETA- ETA KOMUNIKAZIO-ESTRATEGIAK

Txostena	Liburu Zuria 2015	Liburu Zuria 2020	2021eko barometroa	2023ko barometroa	Desberdintasuna 2023-2021
<b>Datuen bilketa-data</b>	2014	2019	2021	<b>2023</b>	
Emaitzak ebaluatzeko sistema (formalizatua) ezarri duten erakundeen %	35	38,3	<b>39,7</b>	<b>41,9</b>	2,2
Gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-planarekin (formalizatua) lotutako ekintzak egiten dituzten erakundeen %	21,8	28,9	<b>31,1</b>	<b>32,2</b>	1,1
Gardentasun-planarekin (formalizatua) lotutako ekintzak egiten dituzten erakundeen %	-	9,1	<b>2,8</b>	<b>11,7</b>	8,9
Kalitate-ziurtagiriren bat duten erakundeen %	-	14,1	<b>14,2</b>	<b>14,4</b>	0,2
Interes-taldeeii jardueren memoriari buruzko informazioa bidali ohi dieten erakundeen %	86,5	83,4	<b>88,9</b>	<b>91,2</b>	2,3
Interes-taldeeii jardueren inpaktuari buruzko informazioa bidali ohi dieten erakundeen %	52	61,0	<b>64,2</b>	<b>61,2</b>	-3,0
Kontuen egoerari buruzko informazioa bidali ohi duten erakundeen %	80,8	83,5	<b>85,4</b>	<b>88,0</b>	2,6
Entitatearen misioari eta balioei buruzko informazioa bidali ohi duten erakundeen %	70,1	74,9	<b>76,6</b>	<b>79,7</b>	3,1

## HARREMANAK

Txostena	Liburu Zuria 2015	Liburu Zuria 2020	2021eko barometroa	2023ko barometroa	Desberdintasuna 2023-2021
<b>Datuen bilketa-data</b>	2014	2019	2021	<b>2023</b>	
Udalekin harreman dezente edo harreman handia duten erakundeen %	-	72,9	<b>78,2</b>	<b>79,1</b>	0,9
Foru-aldundiekin harreman dezente edo harreman handia duten erakundeen %	-	60,0	<b>58,7</b>	<b>61,1</b>	2,4
Eusko Jauriaritzarekin harreman dezente edo harreman handia duten erakundeen %	-	44,4	<b>47,8</b>	<b>48,3</b>	0,5
Gizarte-mugimenduekin harreman dezente edo harreman handia duten erakundeen %	-	64,1	<b>65,3</b>	<b>65,5</b>	0,2
Unibertsitateekin harreman dezente edo harreman handia duten erakundeen %	-	41,5	<b>39,0</b>	<b>38,8</b>	-0,2
Enpresekin harreman dezente edo handia duten erakundeen %	19,8	30,1	<b>29,3</b>	<b>30,5</b>	1,2
Alderdi politikoeekin harreman dezente edo handia duten erakundeen %	14,5	18,0	<b>19,4</b>	<b>17,5</b>	-1,9
Bigarren edo hirugarren mailako entitatearen bateko kide diren erakundeen %	58,7	66,4	<b>62,8</b>	<b>65,8</b>	3,0